

# #GazteKLUBA

## #MusikGazte

### #MusikGazte DEIALDIA

Hartu parte Bilboko Udalak antolatutako **#MusikGazte GazteKLUBA GABONAK** programan, Bizkaiko taldeen, bakarlariek eta DJ berrien garrantzia erakusteko. Bilborocken aritzeko aukera emango zaie, Anne Lukin-en kontzertuko hasierako artista modura.

### **Nork har dezake parte?**

Bizkaiko taldeek, bakarlariek eta DJek. Hauek dira baldintzak:

- Jatorria: taldeko kideen erdiak, gutxienez, Bizkaiko herriren batean bizi behar du.
- Adina: taldeko kideak 1999ko urtarrilaren 1a eta 2006ko abenduaren 31 bitartean jaiotak izan beharko dira. Kide bi edo gehiago dituzten taldeetan, onartuko da kide bakar bat 1999 baino lehenago jaiotak izana.

### **Noiz eman dezakegu izena?**

2021eko azaroaren 10etik abenduaren 3ra (egun biak barne) eman daiteke izena.

### **Zelan eman daiteke izena?**

Izena ematea web-orrian bertan <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/> egin behar da, inprimakia betez eta hauek aurkeztuz:

- Banakako edo taldeko proiektuaren biografia laburra.
- Argazki bat jpg, bmp edo png formatuan.
- Esteka bat, gutxienez kanta 2 entzuteko (propioak edo bertsioak), audioan edo bideoan (Youtube, Bandcamp, Soundcloud, etab.).

### **Zer baloratuko da?**

Kalitateaz gainera, euskaraz kantatzea eta kideen artean andrazkoak egotea baloratuko da.

Gutxienez 6 talde eta bakarlari aukeratuko dira eta emaitza [www.bilbaogazte.bilbao.eus](http://www.bilbaogazte.bilbao.eus) webgunean eta Bilborockeko Facebookean argitaratuko da abenduaren 10ean.

**Finalisten aukeraketa:** 2021eko abenduaren 10ean emango dira ezagutzera web-orrian eta Bilborockeko Facebookean lehiaketaren finalean parte hartuko duten finalisten izenak.

### CONVOCATORIA #MusikGazte

Participa en el programa **#MusikGazte GazteKLUBA GABONAK**, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, con el objetivo de poner en valor a grupos, solistas y DJ jóvenes noveles de Bizkaia, ofreciéndoles la oportunidad de actuar en Bilborock como teloneros de Anne Lukin.

### **¿Quién puede participar?**

Grupos, solistas, DJ de Bizkaia que cumplan los siguientes requisitos:

- Procedencia: al menos la mitad de los componentes del grupo deben ser residentes en alguna localidad de Bizkaia.
- Edad: la fecha de nacimiento de cada componente debe estar comprendida entre el 1 de enero de 1999 y el 31 de diciembre de 2006. En los grupos compuestos por dos o más componentes se admitirá que un solo miembro del mismo haya nacido anteriormente a 1999.

### **¿Cuándo nos podemos inscribir?**

El plazo de inscripción será del 10 de noviembre al 3 de diciembre de 2021 ambos inclusive.

### **¿Cómo realizamos las inscripciones?**

Las inscripciones se realizarán a través de la página web: <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/> cumplimentando el formulario y adjuntando:

- Pequeña biografía del proyecto individual o grupo.
- Una fotografía en formato jpg, bmp o png.
- Enlace donde poder escuchar al menos 2 temas (propios o versiones) en audio o video (Youtube, Bandcamp, Soundcloud, etc)

### **¿Qué se valorará?**

Además de la calidad se valorará, que canten en euskera y que tengan mujeres entre sus componentes.

Se seleccionarán un mínimo de 6 grupos y solistas y el resultado será publicado en la web [www.bilbaogazte.bilbao.eus](http://www.bilbaogazte.bilbao.eus) y en el Facebook de Bilborock el 10 de diciembre.

**Selección de finalistas:** el 10 de diciembre de 2021 se darán a conocer en la web y en el Facebook de Bilborock las/os finalistas que participarán en la final del concurso.

# #GazteKLUBA

## #MusikGazte

### Zuzeneko emanaldia

---

Aukeratzen diren taldeak, bakarlariak eta DJak **zuzeneko emanaldia eskainiko dute Bilborocken abenduaren 27an**, 18:00etatik 21:00etara.

Kontzerturako beharrezko diren argi eta soinu-ekipoak antolatzaileek utziko dizkiete taldeei edo bakarlariari.

Taldeek edo bakarlariak zuzenean aritzeko beharrezko instrumentuak eramango dituzte, bateria izan ezik.

Muntatze-lanak, desmuntatzekoak eta soinu-probak antolatzaileek ezarritako ordutegian egin behar dira.

Talde bakoitzak gehienez 15 minutuko emanaldia eskainiko du.

Antolatzaileen ardura izango da kontzertuaren zabalkundea egitea.

Parte-hartzaileek baimena ematen diote Gazteria eta Kirol Sailari deialdian parte hartzeagatik sortutako musika eta irudiak helburu ez-komertzialekin zabaltzeko, bai eta deialdira aurkeztutako abestien grabazioak zabaltzeko ere, Gaztekluba GABONAK #Musigazte deialdia eta kontzertuak sustatzeko

**Informazio gehiago:** [www.bilbaogazte.bilbao.eus](http://www.bilbaogazte.bilbao.eus)  
**944 20 3514 (08:30-14:00)**  
Gazteria eta Kirol Saila

### Actuación en directo

---

Los grupos, solistas y DJ seleccionados **actuarán en directo en Bilborock el 27 de diciembre** en el horario de 18:00 – 21:00 horas.

La organización pondrá a disposición de los grupos o solistas el equipo de iluminación y sonido para realizar el concierto.

Cada grupo o solista llevará los instrumentos necesarios para realizar la actuación en directo, excepto la batería.

El tiempo de montaje, desmontaje y pruebas de sonido deberá ceñirse estrictamente al horario fijado por la organización.

Cada grupo tendrá como máximo 15 minutos de actuación.

La organización se encargará de la difusión del concierto.

Las personas participantes autorizan al Área de Juventud y Deporte la difusión, con fines no comerciales, de la música y las imágenes generadas por su participación en la convocatoria, así como de las grabaciones de las canciones presentadas a la misma, para promocionar la convocatoria #Musigazte de GazteKLUBA GABONAK y los conciertos.

**Más información:** [www.bilbaogazte.bilbao.eus](http://www.bilbaogazte.bilbao.eus)  
**944 20 3514 (08:30-14:00)**  
Área de Juventud y Deporte